



### 3 HIRIBUSA Muittu Manttangorri! kalean da

Gaur hasiko da martxan herriko garraio publiko zerbitzu berria. Manttangorri izena jarri zaio eta itxura berezia ere badu herriko kaleetan barrena ibiliko den autobusak. 21 bidaiari eta gurgildun aukli batentzako lekua du eta bidaiak 60 zentimoko kostua izango du. Ostiralean asko izan ziren hau probatzera animatu ziren herritarrak.



### 4-5 ELKARRIZKETA Maialen Chourraut brontzeko palista

Londresko Joko Olimpikoetan Maialen Chourrautek brontzeko domina eskuratu zuen. Gure herrian abuztuaren 17an omenaldia egin zioten Nely Albertorekin batera, baina beste hainbat omenaldi egin dizkiote. Bien bitartean, Espainiako txapelketan garaile izan da ere. Orain lanean hasi da berriro ere. Honetaz guztiaz eta gauza gehiagoz hitz egin dugu herriko palistarekin.

1978. urtetik dihardute Guadalupeko Amabirjinaren omenezko jaialdia antolatzen Extremadura Etxeko kideek. Aurten ordea, Adarra kaleko lokal berrian egin dituzten lehenengo ospakizunak izan dira eta ekintzak Jaizkibel plazan jarritako eskenatoki eta barrarekin osatu dituzte. Besteak beste, karta-jokoa, bazkari zein afari herrikoiak, haur-jokoak, meza... izan dituzte gozagarri.

Ostiralean bertan hasita, igandera arte ez dute etenik izan Guadalupeko Ama Birjinaren festek.

#### Ostiralean lokala ikusgai

Aurtengo berrikuntza nagusia Extremadura Etxearen lokal aldaketa izan da. Lehen Uzturre plazan zuten euren txokoa, eta orain berriz Adarra kaleko 4.era pasatu dira.

Ostiralean, lokala barmetik ikusteko aukera izan zuten bertaratu ziren herritarrek eta afaltzeko menuan, extremadurar kaldereta izan zen.

#### Meza eta bandera igoera

Larunbata izan zen jaien egun handia, Extremadura eguna eta Guadalupeko Ama Birjinaren eguna ospatu baitziren.

Horretarako, Xabier Andonegi apaizak amabirjinaren omenezko meza eta bedeinkazioa egin zituen lokal berriko terrazan, Errenteriako Extrema-



Giro paregabea izan dute aurtengo festek, Jaizkibel plaza lepo egon da asteburuan. Gainera, lokal berria herritarrei erakutsi diete.

dura etxeko "Ecos de Monfragüe" taldeak musikatuta.

Mezaren ostean, urtero bezala, Extremadurako bandera altxatu zuten, baina aurtengoan lokal berriko atean.

Hala ere, ohitura zaharrari jarraiki, kolore berde, zuri eta beltzeko bandera altxatzen zuten bitartean Extremadurako ereserkia abestu zuten denek.

#### Udal-ordezkariekin afaria

Guadalupeko Ama Birjinaren festen egun handia larunbata izan zen, eta eguna ongi biritzeko, Casa Extremadurako herritarrek alderdi guztietako udal-ordezkariekin batera afaldu zuten lokal berrian.

Gainera, bisitan izan zituzten Gipuzkoako Eskualdeetako Etxeen federazioko presidente Jose Antonio Vila-boa, herriko "Semblante



Alderdi guztietako udal ordezkariek, bazkideak eta gonbidatuak izan ziren afari ofizialean.

Andaluzeko" kideak, Donostiako extremadurar kultur-etxeko kideak eta Errenteriako "Monfragüe"-koak.

Afarian izan ziren era berean Alejandro Fernández eta Mariano Valle kide funda-

tzailen historikoak.

#### Igandean, jokoak

Festen azken egunean, haur jokoak, herri-bazkaria eta bolo zein tute txapelketa jendetsuak egin zituzten.

ikasi eta landu

## euskara bizia

hitza ematen dizu  
euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

ikasi euskara  
eman izena **aek-n**  
Azterketa ofizialak eta titululu homologatuak [www.aek.org](http://www.aek.org)

**muntteri**  
euskaltzagia **aek**

- Euskara agiriak
- EGA
- Hizkuntza perfilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, behea • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372863 [lasarte@aek.org](mailto:lasarte@aek.org)

## Adituak dio



## Oihana Salazar

Psikologoa

## Ausartu gaitezen!

Aurtengo udaberrian, Sant Jordi egunez urteetan Barzelonan bizi izandako lagunek liburu bat oparitu zidaten. Eskuaratean jasotakoa asko gustatu zitzaidan, haiek bai jakin zein oparitu!

Horrelaxe iritsi zen nire eskuetara AUSARTU ZAITEZ! liburua, (Juanjo Lertxundi). Usurbildarraren liburuari buruz zerbait entzuna nuen -prentsan irakurritaeuskarak argitaratutako lehen autolaguntza liburua baita. Irakurri ondoren, idazlea zoriandu nahi dut. Euskara ulerker, dotore eta jasoan inplikazio handiz idatzitako gidaliburu polita da.

Liburuaren izenburuan jarri nahi dut arreta, ordea. Ausartzea gonbidatzen gaitu eta bera ere ausartu dela esan dezaket. Ausardia ezinbestekotzat jotzen dut : gauzak aldatzeko, ezagutzeko, eraldatzeko, mugitzeko, ikasteko, sentitzeko ... azken finean, guk geuk nahi dugun eran bizi ahal izateko!

Sarritan, udan izandako oporraldian eduki ditugun burutazio eta sentipenei tarrea emateko garai egokia izaten da irailarekin batera datorkigun kurso hasiera. Horrela, proposamen berri horiei eutsi eta ausardiaz ekiteko sasoi ederra da udazkena.

Beraz, oraingoan, gonbidapenarekin bat egin ez ausartu gaitzen, eta desio edo nahi dugun horretarantz egin dezagun bidea. Hain barneratuak ditugun zenbait aitzakia eta pentsamendu alboratu behar baditugu ere, ausartzeak merezi du, benetan.

## Iraileko aldaparik ez

Dagoeneko bukatu dira oporrak. Txintxarrik abuztuan etenalditxo egin du ohi bezala baina aurtengo abuztua desberdina izan da.

Londresen ospatutako Joko Olinpikoetan bi herritar izan ditugu lehiatzen eta nola gainera! Maialen Chourrautek brontzezko domina eskuratu zuen ur bizietako K1 mailan eta Nely Carla Albertok eskubalo jokariak ere, bere taldearekin hirugarren postua lortu zuen partida gogoangarri eta gogorraren ostean. Donostiara jaiotzez, senarra lasarte-oriatarra du eta hemen du bikoteak bere bizilekua nahiz eta une honetan Frantziako ligan aritu.

Bi emakume hauen lorpena, herrian behar bezala ospatu zen udalak antolatutako omenaldi hunkigarri batean.

Herritarrek Okendo plaza bete zuten bi kirolariei merezitako babes eman eta aurrez aurre zoriontzeko. Izugarria benetan Lasarte-Oriako herriarentzat hain maila altuko kirolari izatea. Txintxarrien aldetik, lerro hauek izan daitezela bi txapeldun handi hauek zoriontzeko talai. Maialene-kin hitz egin ostean gainera, Brasilgo jokoak ditu helburu beraz hurbiletik izango gaitu datozen lau urteetan ere herriko gazteak animoak eman eta bere ibilbidea jarraitzen.

Garaipen polit hauen oroitzapenarekin has dezagun ikasturtea baikor, indar eta ilusio berriekin. Utz ditzagun momentuz, BEZaren igoera, eskola edota lantokira buelta eta gainontzeko krisia/k, murrizketak etab. behintzat... datoren asterako.

## Hitz eta pitz

## Nola hasi duzu ikasturte berria?



## Juan Arrospe

Gaizki, prezio denak gora doaz, eta soldadak behera. Jubilatua, larri gaude, gaur egun, semei laguntzen ari gara. Gazteek aitonei lagundu beharean, aitona seme-alabei laguntzen. Gero eta okerrago goaz. Elezioak datoz, eta gauza askotaz hitz egingo dute, baina inork ere ez ustelkeriari buruz. Gonzalez presidentek "trabajo es salud" esaten zuen, baina berak ez zuen asko egin.



## Maite Muro

Dena igo dela diote, baina zain nago ea zer gertatuko den, ea igoera benetan nabaritu den, ikusteko. Momentuz hitz soilak dira. Ez dakit zer gertatuko den, baina, kezkatuta nago. Hilaren 1etik dena dator BEZaren igoerarekin, eta hori ez dago ondo, denbora tarte bat egon beharko zen egokitzeko, izan ere saltzaileek biltegian izan dituzte produktu horiek.



## Larrun Pikabea

Gogoa badaukat ikasturtea hasteko, baina ez dut oporrak bukatzerik nahi. Oso ondo ibili naiz oporretan, eta saiatu naiz munduan ibiltzeko hizkuntzak ikasten ere, frantsesa ikasten aritu naiz. Orain gogoa daukat eskolako lagunak berriro ikusteko eta gauza berriak ikasteko. Eskola aldatu egingo dut gainera, DBH1era noa. Orain arte nota onak ateratu ditut.



## Joxemi Barandiaran

Gogoz hasi dugu, baina betiko urduritasunarekin, gauza berriak izaten direlako aurrean, nahiz eta nik iazko ikasle berdinak izan. Beste maila bat da eta ikasleekin harremanetan jartzean, zu ere lasaitzen zara, baina bitartean... Bestalde, murrizketei buruz hitz egiten ari gara, gure lana ez da behar bezala baloratzen, ordu estra mordo sartzan ditugu aintzat hartzen ez diren.

## Iruditan



Michelinek helduen eskola zabaldu zuen. Tomás Fernández

## Ikasturtea hasi da

Ikasturte berriaren hasieran beti gogoan izaten ditugu haurrak baina udako oporraldian ostean, asko dira lanera egunotan bueltatzen diren helduak. Egun ohikoa da helduen artean ikastarok edota beste ikasketak batzuk burutzea ikasturtean zehar baina orain urte batzuk ez zen horrela. Horregatik ikusmina eta arrakasta izan zuen 50. hamarkadan herrian Michelinek mar-tan jarritako lehen helduen eskolak. Tomas Fernandez bildumatik ateratako argazkian eskola honetako lehen ikasturteko ikasleak ditugu. Ikusten denez, denak gizonezkoak hastapen haurtan.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**



GFAKO Kultura eta  
Euskara Departamendua

HIRIBUSA

# Manttangorri gure kaleetan da

Herriko garraio zerbitzu berriak gaur hasiko du bere ibilbidea

**Ostiralean herritarrek erabili ahal izan zuten zerbitzua eta asko izan ziren Manttangorri ibilitea animatu zirenak. Aurkera ona izan zen ostiralekoa autobusak herrian egingo duen ibilbidea eta geralekuak ezagutzeko. 21 bidaiari eta gurgildun aulki bat garraiatzeko lekua du.**

**M**anttangorri, manttangorri guztiak bezala, txikia da, gure herriko bidai txikiak egiteko; kolo-retsua, gure kaleetara alaitasun zantzu bat ekartzeko; bizia, batetik bestera mugituko baita herritarren bizitza erraztuz. Hitz batean, maitagarria, halaxe nahi dugulako gure Hiribusa, lasarteoriatarren zerbitzura beti". Hala deskribatu zuen autobus zerbitzu berria Pablo Barrio alkateak Okendo plazan Ana Isabel Prieto eta Santi Sarasola TSST enpresako ordezkariarekin batera egindako agerraldian.

Manttangorri 21 bidaiari eta gurgildun aulki bat garraiatzeko lekua du eta garraio publiko zerbitzuekin udaletik espero dute herritik egiten diren desplazamenduak autoetan egiteak, Man-



Irudi erakargarria du Manttangorri herriko autobusak.

ttangorriren egitera pasatzea herriko kaleetatik auto kopurua murriztu aldera.

## Ingurugiroa zaindu

Autobusak biodiesel kontsumitzen du eta bere tamaina txikia dela eta CO2 emisioak ere nabarmen murriztuzkoak izango direla azaldu zuten.

Gainera guztiz egokitutako autobusa da Manttangorri, arrapala dauka gurgildun aukientzat eta sistema hidraulikoa bereziari esker, geltoki bakoitzean autobusak behera egiten du espaloia maila berean gera dadin.

Ana Prietok adierazi zuenez, aurretik herrian martxan

egon zen hiribus zerbitzua hobetu nahi izan da "kalitatezko zerbitzua eman bai baina udalak dirua aurrez-tuz". Horrela autobusaren kostua 42.106 euro + BEZ izango da, lehen proposamenarekin alderatuz %64,82 merkeagoa.

## Ordutegi eta ibilbidea

7:40etan institutuko ikasleei zuzenduta batez ere, ibilbide berezi batekin hasiko du eguna Manttangorri. Ibilbide hau probatan jarriko da izan ere ordutegia betetzeko zailtasunak ikustekotan, beharrezko aldaketak burutuko dira.

Ondoren, 8:00etan hasiko da ibilbide arrunta Antxusutik. Hiribusaren geltokiak, behin behineko kartel batzuen bidez identifikatu ahal izango dira eta bertan ordutegiak eta ibilbideak egongo dira ikusgai. "Behin behineko deritzot geltokien diseinua erabaki arte". Abuztuan egindako udal batzarrean erabaki moduan bidaiaren zenbatekoa 0,60euro-koa izango da.

## Ostiralean doan

Egun osoan autobus txikiak herrian zehar bere ibilbidea egin zuen ostiralean eta lehen bidaiak ez zituen hutsik egin. Asko izan ziren honetara igo nahi izan zuten herritarrek bidaiaria doan zela animatuta.

Lehen bidaiariei galdetuta, ordutegi eta ibilbide zein paradak zeintzuk diren eza-gutzeko helburuarekin hartu zuten Manttangorri eta momentuz, zerbitzu ona zela iritzi zuten "ikus beharko da egunerokoan ordutegiak betetzen diren eta ibilbidea egokiena den denentzat edo ez".

Manttangorriren itxura da atentzio gehien deitu duenak "polita da eta horrela ez dugu herritik pasatzen diren beste autobusekin herrikoa nahastuko, ideia ona iruditu zait". Momentuz behintzat, Manttangorri herritarren artean harrera ona izan zuen bere estreineko egunean.

STOCK AZOKA

## Izena emateko epea zabalik

Aterpeak eta Lasarte-Oriako udalak antolatzen duten V. Stock eta Saldoen Azokak aukera paregabea eskaintzen du saldu ez diren produktuak merkatu-ratu eta era berean marka komertzial lokalen erakusle-ihozateko.

Aurten azoka irailaren 29 eta 30ko asteburuan ospatuko da Okendo Plazan 10:00etatik 21:00etara larunbatean eta 10:00etatik 20:00etara igandean.

Herriko edozein dendak har dezake parte azoka berezi honetan. Interesatuta dauden merkatariek dagoneko kontaktuan jar daitezke Aterpearekin, 637 955 030 / 678 666 812 deituta edo mezu elektronikoko bat bidalita itziarirurzun@hotmail.com helbidera. Izena emateko azken eguna irailaren 19a izango dela gogoratu nahi dute antolatzaileek.

IKASTAROAK

## Dantzan ikasteko izena ematea

Ikasturte berrian dantza egin nahi duten herritarrentzat izena emateko epea irekita dago. Dantza ikasturtea urriaren 8an hasiko da. Helduei zuzendutako ikastaroak izango dira ohi bezala goizeko ordutegian eskainiko direnak eta arratsaldekoan 5 eta 13 urte bitarteko haurrenak izango dira.

Hauetan izena emateko kultur etxeko 3. solairuan egin behar da irailaren 28ra bitartean. Ikastaroen prezioa hileko 28, 60 euro izango da herrian erroldatuta daudenentzat eta 49, 20 euro erroldatu gabeenentzat.

MARATOIOA

## Kamisetak salgai Ttakun eta Jalgin

Urria gerturatzen doa eta dagoneko Euskararen Maratoirako kamisetak salgai daude Ttakunen eta Jalgin.

Zortzigarren edizio honetako leloak apaintzen ditu kamisetak, Bihotzetik Plazara. Helduentzat bi modelo ezberdin ateratu dira, biak beltzak eta umeenak udinak.

Neurri ezberdinetan daude eskuragarri eta prezioei dagokionez, 15 eurotan daude salgai helduenak eta 10 eurotan berriz etxeko txikienenak.

## Aste beteko egitaraua prestatu dute herriko nagusiek

**U**rriaren 1etik 8ra bitartean ospatuko dute herriko nagusiek euren jaialdia. Aurten lehenengo egunero ekin-tzak antolatu dituzte. Tartean urriaren 6an ibilaldi neurtua egingo dute herriko kaleetan barrena, dantza txapelketa izango dute, frontoian egin ohi den bazkari jendetsua eta Jubilatuetako egaren 34. urteurrena ospatuko dituzte.

Urriaren 1ean Toka, igel eta bote txapelketak egingo dira Isla plazan eta Mus txapelketa jubilatuen etxean. Urriaren 2an Sun Magoaren eta Adolfo Perez bakarriketariaren emanaldiak ikusi ahal izango dira jubilatuen etxean. Urriaren 3an berriz, jubilatuen etxeko soinketa eta aerobic taldeen erakusketak izango dira Okendo plazan. Urriaren 4an paleta txapelketako finala Loidibarrenen



Alkatearekin batera aurkeztu zuten ekintza egitaraua.

jokatuko da eta Okendo plazan Senblante Andaluzen emanaldia egingo da. Urriaren 5ean, ostirala, "Melocoton en Almibar" antzezlan izango da kultur etxean. Urriaren 6an lehen Martxa Erregulatua egingo da Okendo plazatik hasita eta dantza txapelketa ere egingo dute larunbatean jubilatuetan.

Igandean berriz, San

Pedro parrokiaren meza, abesbatzaren emanaldia kultur etxean, bazkaria Michelingo frontoian eta dantzaldia izango dira. Astelehenean emango zaio amaiera egitarau oparoari jubilatuetako 34. urteurrenaren ospakizunarekin. Meza eta luntxa egingo da Brigidatarren komentuan goizean eta arratsaldean urrezko ezteiak ospatzen

dituzten bikoteei opariak emango zaizkie afari merienda baten baitan. Ondoren dantza egiteko aukera izango dute festari amaiera emateko.

## Izen emateak

Ekintza guztietan parte hartzeko, izena eman behar da jubilatuen etxean. Igandeko bazkariari dagokionez, aldaketak izan dira. Aurten 850 lagunentzako lekua egongo da eta 8 euroko kostua izango du menuak. Horretaz gain honetan parte hartu ahal izateko Lasarte-Orian erroldatuta egon beharko da eta 1946. urtean edo lehenago jaioa izatea. Tikitak zaharren egoitzan salgai daude irailaren 14a arte goizeko ordutegian. Jubilatuen etxetik herritarrek bereziki animatu nahi dituzte urriaren 6ko ibilbide neurtuan parte hartzera.

**Maialen Chourraut Piraguista**

# “Gehiago ere nahiko nuke”

■ **Brontzezko domina eskuratu zuen herriko palistak Londresko Joko Olimpikoetan**  
 ■ **Orain bere helburua hemendik lau urtera Rio de Janeiron ospatuko diren Jokoak dira**



Maialen Chourraut herritarnek bigarren postua eskuratu zuen Joko Olimpikoetan Rio de Janeiron. M. CHOURRAUT

**Londresko Joko Olimpikoetan Maialen Chourraut herritarrek brontzezko domina eskuratu zuen Lee Raegarrian. Gainera, denboraldiari amaiera emateko abuztuaren 11 eta 12an Ispaniako Espainiako txapelketan garaiak izan zen.**

**Nerea ERZARRE**

Abuztuaren 2a egun handia izan zen Maialen Chourrautentzat, joko Olimpikoetan podiumeko hirugarren hartzailean, Olinpiar domina eskuratu zuen. Geroztik, olinpiar txapelketan lehiatzen diren atletak, gehiago eta gehiago dira. Olinpiar txapelketan lehiatzen diren atletak, gehiago eta gehiago dira. Olinpiar txapelketan lehiatzen diren atletak, gehiago eta gehiago dira.

**Zein orotzipan dakartzazu Londresetik?**

Askotan dirudienez, Maialen Chourraut nahi izan zuen. Oso politikari izan ziren jokoak eta ondorioak. Olinpiar txapelketan lehiatzen diren atletak, gehiago eta gehiago dira. Olinpiar txapelketan lehiatzen diren atletak, gehiago eta gehiago dira.

**Nola joan zen lehiaketak?**

Joko Olimpiko baitzuten egoztea ez da erraza. 12.000 pertsona ziren zuzen ziklistak.

**Jaietsiera bakoitza proba bat da. Helburua pausu hori igoaraztea da eta hurrengo final erdian edo finalean egotea. Horielako bat trabazteak ez du esan nahi hurrengo jaietsieran irabaziko duzunik**

# AMAZIAK

## JANTZI-DENDA

**ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!**

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386



**Nik badakit oraindik Maialen asko geratzen dela barruan eta hori aprobetxatu nahi dut**

ren aieratzen dena indartsua- go izaten da. Pekinen ez nuen lortu. Oregino honetan bedur hori neukan, atarazko ote ez zen, baina garazko ongi joan ziren hasieratik eta egia esan, bukaturakoan krisioren lasaitasuna haratu nuen.


**Londres utzi eta urezko ongi eorria izan zenuten, ezta?**

Jendea oso hunkituta zegoen, ikusten zen lehiaketa asko bizi izan zutela. Zerbaite espero genuen baita ez hainbeste.

Gero aireportutik Ailetico San Sebastian-era joan ginen, Kontxara eta hor jarraitu zuen tesak.

**Ondoren egun batzuk izan zituen Espainiako bapela-pretazteko...**

Buelatu eta aste betera Espainiako bapela-pretazteko. Ez zen erraza izan konpetitiboa izatea. Jende askok denbora ninduen, ez nuen pikta bat harrituta geratu nintzen. Pikkanaka oheratu joan naiz. Zenbat jende jarraitu gaituen ikustea, joko Olimpiko hauak gozatu dituzela jakitea. Oso polita izan da niretzat jendeak praguisismoa jarraitu zitzaidan. Oso ondo lehiatu



12.000 ikusle egin ziren Len Valley-en praguisismoa proba ikusten. M. CHOURRAUT



Maialen Chourrautek eta Nely Alberok omenaldi berea jaso zuten herrian abuztuaren 17an.

garrantzitsuak dira Joko Olimpikoak, hauek markatzen dute bidea. Profesionalen modura entrenatzen dugu eta bizimodua hori daramagu, baita ez gara profesionalak, ez daukagu kontratu profesionalik, diru laguntzen bitartez bizi gara eta loko Olimpikoak dira mugak.

**Beste omenaldi bat ere izan zuten Zarautzen ATC-k anolatuakoa, ezta?**

Oraingo dela pare bat aste izan zen. Arraunlariak hain liga bukatzen zuten eta mutlek asko zuten jokoan. Hor egon nintzen estropadak ikusten.

**Beste omenaldirik izan al duzu edo isakoz duzu?**

La Seu-n ere omenaldiko bat izan da. Oso ondo lehiatu naiz. Oso polita izan da niretzat jendeak praguisismoa jarraitu zitzaidan. Oso ondo lehiatu

**Elkarizketan domina Lan-berriko haurrek oparituak kurtxoetan gordetako duzula esan zenuen...**

Domina alde batek bestera pasatzen izan dut, baita herenegun La Seu-ris nintzen entrenamenduetan hasitako eta domina kurtxoetan gordetako. Eta horiek geratuko da oraingo.

**Entrenamenduetan hasi zarela alpatu duzu, zein duzu helburua?**

Guretzat kirol olimpiko eta profesionalak egin eta kirolari profesionalak ez garenontzat,

garrantzitsuak dira Joko Olimpikoak, hauek markatzen dute bidea. Profesionalen modura entrenatzen dugu eta bizimodua hori daramagu, baita ez gara profesionalak, ez daukagu kontratu profesionalik, diru laguntzen bitartez bizi gara eta loko Olimpikoak dira mugak.

**Beste omenaldi bat ere izan zuten Zarautzen ATC-k anolatuakoa, ezta?**

Oraingo dela pare bat aste izan zen. Arraunlariak hain liga bukatzen zuten eta mutlek asko zuten jokoan. Hor egon nintzen estropadak ikusten.

**Beste omenaldirik izan al duzu edo isakoz duzu?**

La Seu-n ere omenaldiko bat izan da. Oso ondo lehiatu naiz. Oso polita izan da niretzat jendeak praguisismoa jarraitu zitzaidan. Oso ondo lehiatu

**Elkarizketan domina Lan-berriko haurrek oparituak kurtxoetan gordetako duzula esan zenuen...**

Domina alde batek bestera pasatzen izan dut, baita herenegun La Seu-ris nintzen entrenamenduetan hasitako eta domina kurtxoetan gordetako. Eta horiek geratuko da oraingo.

**Entrenamenduetan hasi zarela alpatu duzu, zein duzu helburua?**

Guretzat kirol olimpiko eta profesionalak egin eta kirolari profesionalak ez garenontzat,

tzeko. Garrantzitsua da lehiakideak hor egotea, bestela gehiegi lasiatuko ginatke eta aurrera begira ez genuke hainbeste hobetuko. Badakit hakek ere gogor entrenatzen jarraituko dutela eta Brasilen egon nahi dutela. Baina batentzako bakarrak egongo da itokia. Oribuan, gura artean egongo da lehia hori eta hobere-nak inbax dezala.

**Eta auzunteko eronka zein izango litzateke?**

Alpatu, bezala, piraguista hobea izatea da. Beti hobetuz joan da. Hobeak izateko, Hurburatuak ongi markatu, fisikoak zer hobetu behar diren ikusi eta hori lantzen joatea piktanaka.

**Zure helburua Brasilen dagoela esan duzu, baita noiz arte jarraituko asmoa duzu?**

Gure karreraren ez da inoiz jakiten zehazki noiz amaituko den, edozein egumetan lesio indaratu bat izan eta kanpoan utzi zaitzake.

**Nik badakit oraindik Maialen asko geratzen dela barruan eta hori aprobetxatu nahi dut.**

Gero zerbaite geratzen bazait eta utzi behar baldin badut horrela izango da. Baina oraindik momentua ez izatea espero dut.

**ADURIZ DE LASARTE S.A.**  
 Solemosa baratxurilaria  
 Etxeko Ikeritza Basurde burua  
 Baserri patsea  
 Txistora  
**BERTAKO FABRIKAZIOA**  
 Lodi Barrena Kalea 3 - Tel: 943 361 678 - 943 361 655 - 943 362 651  
 Lasarte-Oria

**ANORGA TXIBI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-ixturrak eta irristailuak  
 • ispiiluak • barandak • kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 33- 610 45 93 45

## LABURRAK.-

## Kirol jardueretan izena emateko aukera

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak haur, zein helduentzako jarduerak ugari antolatu ditu 2012-2013 ikasturterako.

Heldu eta gazteentzat eskaintza eta ordutegi aukera zabala dago. Mantentzeko gimnastika eta igeriketa, aerobika, gazte-funka, indor txirindularitza, pilates, body-pump, aquaerobika, entrenamendu gida, igeriketa ikastaroak eta konbia, hau da, txirindularitza, gimnastika eta tonifikazioa bateratzen dituen ikastaro egiteko aukera dute herritarrek.

Haurrentzako berriz, kirol ludoteka eta igeriketa ikastaroak daude eta urritik aurrera, 2001 eta 2002 urteko gaztetxoek kirol jardueren sustapena izango dute.

Kirol jardueren izena emate epea ostirala honetan amaituko da. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak dei dezala 943 376 182 telefonora edo hurbil dadila kiroldegiko bulegora astelehene-tik ostiralera 10:00etatik 12:30era edo 17:00etatik 19:00etara.

## Buruntzaldea IKT-ko eskolan lanean hasiko da

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak gaur izango dute 2012-2013 ikasturteko lehen entrenamendua igerilekuan eta aldaketa txiki batzuk egongo dira igeriketa eskolako ordutegietan.

Entrenatzaileek jakitera eman dutenez, daukaten haur kopuruaren arabera ordutegiak moldatzeko beharra sortu zaie. Hori dela eta, zenbait taldek ordu aldaketa txiki bat izango dute.

Gauzak honela 2005 urteko prebenjaminek astearte eta ostegunetan 17:30etik 18:15era izango dute saioa. Lehen urteko benjaminek, 2004 urtea, astearte eta ostegunetan 18:15etik 19:00etara dute entrenamendua; 2003. urteko benjaminek, berriz, astelehena, asteazkena eta ostiraletan, 17:30etatik 18:30etara egingo dute lan. Azkenik, alebinek, hau da, 2002, 2001 eta 2000 urteko mutilek astelehena, asteazkena eta ostiraletan izango dira igerilekuan, 18:00etatik 19:30etara.

Era berean, taldean izena eman nahi duen orok, aukera baduela jakinarazi nahi dute. Horretarako, igerilekuan 17:30etatik aurrera Borjagatik galdetuz eskuratu dezake informazioa edo bestela 696 506 632 telefonora deitu dezakete.

## Neguko ordutegia kirol guneetan

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak gogora arazten du dagoeneko herriko kirol guneetan neguko ordutegia martxan dela.

Horrela kiroldegia astelehene-tik ostiralera 7:00etatik 22:30era, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandetan 9:00etatik 13:00era izango da zabalik.

Michelingo Kirol Gunean berriz ordutegia honakoa da: astelehene-tik ostiralera 15:30etatik 22:30era, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandetan 9:00etatik 13:00etara.

## LOKEko tenis eskola martxan

LOKEko tenis eskolak 2012-2013 ikasturteko lehen saioa izango du gaur arratsaldean 18:30etik aurrera kirol guneko tenis pistan. Era berean, eskolan parte hartzeko izena ematea irekiko dute gaur.

Antolatzaileek azaldu dutenez, ordutegi eskaintza aurreko urteko bera izango da eta lehen bi asteak taldeak antolatzeko izango dira.

Izena eman edo antolatzaileekin harremanetan jartzeko astelehene-tik ostiralera 18:30etik aurrera kirolgune-tik pasa daitezke interesatuak edo 647 156 146 telefono zenbakira deitu.

## LOKEko judokak lanean hasiko dira

LOKEko judo atalak gaur emango die hasiera 2012-2013 ikasturteko entrenamenduei kiroldegian.

Gorka Aristegi entrenatzaileak jakin arazi digunez, 7 eta 10 urte arteko judoek astelehene-tik ostiraletan 18:30etik 19:30era izango dute entrenamendua eta hamaika urteko gorkoek, aldiz, astelehena, asteazkena eta ostiraletan ordu berean.

## Nesken saskibaloitza taldea sortu du Ostadarrek

Ostadar SKT-k neska kadeteen (1997-1998) taldea sortu nahi du. Entrenamenduak lehenengo astean hasi bazituzten ere, antolatzaileek neska gehiago behar dituztela jakitera eman dute.

Entrenamendu saioak asteazkenean 15:00etatik 16:30era eta ostiraletan 15:00etatik 16:30era eta 21:00etatik 22:00etara egingo dituzte kiroldegiko pistan.

Honetan parte hartu nahi duen neskatilak Ostadarreko egoitzara edo entrenamendu egunetan kiroldegira gertura daitezke.

## FUTBOLA.-



Ostadarreko mutilek Kadeteen Euskal Ligan estreinatu aurretik, Bosta, Gorri eta Olaizola prestatzaileak aldamenean dituztela.

## Amestutako debuta Euskal Ligan

## Ostadarreko kadeteek bikain hasi dute denboraldia

**Aurreko urteko balentria denok oraindik gogoan dugunean, Ostadar SKT-k debuta egin zuen lehenengoz Kadeteen Euskal Ligan. Michelingo berdegunean jokaturako partiduan, Cultural Deportiva Durango izan zuen aurrean eta erakustaldia emanda lortu zuten ligako lehen hiru puntuak eskuratzeari, erraztasunez, 4-0 irabazi ostean.**

taldeari Euskal Ligan partiduak irabazteko sasoa eman diotelakoan dago Olaizola.

**Hurrengo zita Barakaldon**

Partidua amaitu orduko, hurrengo jardunaldian pentsatzen ari zen Burgos, Eibar eta Mallorcan jokalaritza profesionala izandako Javi Olaizola, gaur egun Ostadarreko kadeteen entrenatzaile dena.

Bere ustetan, Barakaldo FC kategorian honetako puntako taldeetako bat da eta arerioaren maila altuaz gain, La Siebe zelaia "estua" izateak gauzak zailduko dizkiela uste du. Dena den, mutilek zelaian "dena" ematen badute, oso gustura itzuliko dela argitu du.

**Aurkari gogorrek Ligan**

Ostadarrez gain, Real, Anti-guoko, Alaves, Eibar, Athletic, Hernani eta maila oso altuko beste 9 talde arituko dira Euskal Liga irabazteko lehian.

**P**rintzipioz, urte zaila, konplikatuak dute aurretik Ostadarreko kadeteek Euskal Ligan. Larunbateko partiduan argi geratu zen ordea arerio gogorra izango direla gaitzaren taldeentzat, eta mutil lasarteoriarrei irabazteko asko izerditu beharko dutela Euskal Herriko talde handienek.

**Lehen partiduan, ikusgarri**

Javi Olaizola prestatzen duen taldeak errepaso eman zion Cultural Deportiva Durango talde bizkaitarrari larunbata eguerdian Michelingo jokatu zen partiduan.

Emitzak besterik pentsarazteraz gonbidatzen gaituen arren (4-0), lehen zatia oso berdinduta joan zen, bi taldeek zelai erdian egindako lan gogorri eskerrak.

Hala ere, atsedendaldira joateko gutxi falta zenean, Julen Iñarrak gol zoragarria sartu zuen falta jaurtiketa bat buruz loratuta.

**Bigarren zatian nagusi**

Hortik aurrera, kolore beltz eta urdina izan zuen oso-osorik bigarren zatia, beste hiru gol sartzea lortu baitzuen Ostadarrek.

Olaizolaren arabera, euren nagusitasunaren gakoak mutilek erakutsitako "grina, kokapen egokia eta irabazteko gogoia"

izan ziren eta bere mutilek egindako lanaz "harro" sentitzen zela aipatu zuen.

Gainera, hain kategoriazailan halako garaipen handi batekin debuta egitea "moral kolpe izugarria" izan dela aitortu zuen bai bere mutilentzat, zein prestatzaileentzat.

**Fruitua erein egin behar...**

Bestalde, larunbateko garaipena azken lau asteotan egindako lan fisiko gogorri eskerrak izan dela adierazi zuen.

Noizbehinka egin dituzten goiz eta arratsaldeko saio bikoitz "neketsu eta trinkoek"



Partidu "biribila" jokatu zuten herriko mutilek Javi Olaizola entrenatzailearen iritziz.

— Agenda —

Iraila osoa, Jalgi kafe-antzokia



Amalurra eta bizitza

Jon Galdos artista irundarraren Amalurra erakusketa ikusgai dago. Olio margoz mihise gainean edo egurrean egindako hainbat lan aurkezten ditu. Hauetan jaiotza, eguzkia, bizia, ilargia, heriotza eta Amalurra agertzen ditu artistak. Gainera, lagungarri gisa, olerki eta testuak atxiki dizkio margoei.

OKENDO PLAZA

Larunbata 29-Igandea 30

Beste urte batez, herriko Aterpea elkarteak Udalaren laguntzaz V. Stock eta Saldoen Azoka antolatuko du.



Bestelakoa

OKENDO PLAZA

Larunbata 22, arratsaldean

Euskaraz bizi nahi dut martxa egingo da herriko kaleetatik zehar. Kontseiluak herriko hainbat elkarteekin antolatutako ekimena da.

Hernani

Jaiak

ERDIALDEA

Larunbata 15-Igandea 16

Euskal Jaiak ospatuko dituzte Hernanin.

GUDARIEN PLAZA

Igandea 16, 12:00etan

XIV. Gazteen Tzikitixa Txapelketa ospatuko da Kriskitiña dantza taldeak antolatuta.

Erakusketa

BITERI KULTUR ETXEA

Irailaren 28tik-Urriaren 11era

Argazki Rally digitalaren erakusketa ikusgai izango da.

Lasarte-Oria

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 14, 23:00etan

Glazz taldearen jazz, rock eta psikodelia doinuez gozatzeko aukera izango da.



ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 14, 23:45ean

Metal gaua Hell Damm eta Noxbleed taldeen eskutik. Sarrera 5 euro.



OKENDO PLAZA

Larunbata 15, 22:00etan

Gazte kontzertuak Donostiako Besteik-

pe, Usurbilgo Odolaren Mintzoa, Hernaniko Oi dek oi eta herriko The Garax taldeen eskutik.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 21, 00:00etan

Sergio Cruz, Mora GS eta Daniel Knob dj-en emanaldia entzungai izango da.

Azoka

OKENDO PLAZA

Ostirala 21-Igandea 23

Erdi Aroko azokaz gozatzeko aukera izango da.

— Herritarren txokoa —

Biyak Baten txangoa Jacara

Biyak Bat elkarteak txangoa antolatu du irailaren 21ean, Jacara.

Autobusa goizeko 8:00etan aterako da elkarte egoitza.

Santa Cruz de la Serós eliza erromanikoa eta San Juan de la Peña monastegia ezagutu ahalko dira txangoan.

Bazkal ostean, denbora libre izango da Jaca herria ezagutzeko.

Irteeraren prezioa 34 eurokoa da bazkideentzat. Bazkide ez direnek ordea, 38 euro ordaindu behar dituzte. Izena ematea gaur irekiko da, 10:30ean.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, bost betaurreko graduatuak, eguzkitako betaurrekoak, bi mugikor, txandaleko jaka bat eta txirrinda bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora

hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Alboka abesbatza martxan

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, 2012-2013 ikasturteari hasiera eman diola.

Era berean, abesteko interesa duen orori Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalera, astelehena edo ostegunetan 20:00etatik 21:00etara, hurbiltzeko gonbita egiten die.

Margo eta marrazki ikastaroa

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroko izen-ematea ireki du.

Interesa duten herritarrek gaur, bihar eta asteazkenean Iñigo de Loyola 12 behean elkarteak duen egoitzan izena eman dezakete.

Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

— Haurren txokoa —

Aurki itzazue 10 zuhaitzen izenak

Z	B	U	X	U	M	I	X	T	I	W	A	B	X	D
X	A	L	Y	W	W	Q	O	X	V	V	U	I	B	A
Z	O	A	I	R	R	O	G	O	G	A	P	E	O	O
O	D	Q	A	O	D	N	O	N	I	A	T	Z	A	G
S	N	T	P	J	T	C	Q	M	A	M	Z	G	G	A
L	O	A	M	I	Q	W	X	G	A	L	D	O	N	P
C	R	I	B	A	N	A	Z	T	I	R	R	U	H	Z
V	R	K	V	Y	U	U	L	V	M	O	N	E	U	W
S	U	R	P	I	C	A	A	L	S	H	S	N	E	Y
I	A	U	N	C	L	P	Q	T	L	C	R	G	L	A
R	X	B	D	W	A	A	I	B	G	Z	J	O	Y	D
P	T	A	I	T	R	A	G	E	N	E	M	U	Z	T
F	N	W	R	D	J	X	N	V	Q	M	S	E	T	O
M	I	A	L	M	A	Y	M	T	N	Q	G	Q	F	D
R	C	L	A	Z	T	I	R	A	H	V	R	C	W	K

euskal.info

GAZTAINONDOA  
GOROSTIA  
HARITZA  
HURRITZA  
INTXAURRONDOI  
PAGO  
PAGOGORRIA  
PINUA  
URKIA  
ZUMENEGARTIA

Bazenekien...

...1986. urteko udan, Etiopian Espainiar enbajadan, libelula edo burdinorraz erraldoien (15cm hegala artean) eraso bat jaso zutela eta hauen kontra erratzekin borrokatu izan behar zutela.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Zuregandik hurbil

Tel: 943 37 78 68  
www.ventanasalcar.com

**Etorri gure denda berrira,  
Plaza Oriamendi, 2.  
(Lehengo Doble J)**



**Tel: 943 37 78 68**  
**tienda@ventanasalcar.com**  
**www.ventanasalcar.com**

**ERAKUSKETA**  
**Plaza Oriamendi, 2**  
**20160 - Lasarte-Oria**  
**Gipuzkoa - (Lehengo Doble J)**

**TAILERRA**  
**Ibaiondo, 4 erdisotoa 5-A**  
**20160 - Lasarte-Oria**  
**Gipuzkoa**

# Bideo Lagunak



Betiko zerbitzua  
gure aholkularitza  
onenarekin

**BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



Inguruko erakusketarik  
onena!



## ESKAINTZA ZABALA

- Euskalduntzea eta alfabetatzeko maila guztiak.
- Astelehenetik ostegunera.
- AUTO-İKASKUNTZA (mintzarena taldean).

## AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

Hizkuntz eskakizunak eta HABEren 1., 2., 3. (EGA) eta 4. mailak.  
Titulu homologatuak: Osakidetzarako, Hezkuntzarako, Ertzaintzarako eta Administrazioarako bako  
dutenak.

## ERABILERA BULTZATZEKO EKINTZAK

• SOLASKIDE: Herriko euskaldunekin mintza praktika egiteko. Euskaltegian ikasten dena eguneroko  
bizitzan praktikatzeke.

## İKASTAROAREN IRAUPENA

Irailaren 20tik ekainaren 19ra arte.

## MATRIKULALDIA

Irailaren 3tik 18ra. (Geroago matrikulatutakoak onartuko dira talderik eta lekuri baldin badago).

Bulego ordutegia: 08:30-19:15



**25**  
**URTE**  
**ZUEKIN!**

Beka sistemak ditugu. Galde ezazu!

**LASARTE-ORIA**  
**Udal Euskaltegia**

Bekokale bidea 1  
LASARTE - ORIA  
943 36 16 21  
euskaltegia@lasarte-oria.org

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia • Tel.: 943 361621 • www.lasarte-oria.org/eu/html/25/1147.shtml